

ZM

ZORROTZ MORROTZ

49. ZIKUA 2018ko URTARRILA

TXUS GOJENURI

ATHLETIC CLUBEKO EMAKUMEZKOEN
FUTBOL KOORDINATZAILEA



AZAHARA DANTZA TALDEA

Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

2018an ere, guztiontzako auzo hobea lortzeko lanean

Lehenik eta behin, urte berri on guztioi! Hasi berri den urtean, auzopositibotasunez betetako mezu bat zabaldu nahi dugu. 2017a Zorrotza-rako oso gogorra izan zen. Hala ere, ez diogu burua tente izateari utzi-ko eta uneoro auzo hobea bat lortzeko ilusioz lan egiteari uko egingo.

Aipamen berezi pare bat: alde batetik, 2017ko bukaera auzoko giza-bizitza garatzeko aukera ederra den Auzoka Zentru Komunitarioaren inaugurazioa eta martxan jartzearekin batera etorri zen. Bestalde, urtarrilaren 20an auzoko Herri Mugimenduak lan jardunaldi bat izango du. Bertan, gaur egun martxan ditugun eta etorkizunean landuko ditugun ekintzak deskribatu eta bultzatzeko asmoa dugu, tartean FEVE, elkarbizitza, proiektu giza-kulturalak, ondarea eta abar luze bat.

Beraz, adi! informatuak eta parte hartzeko prest egoteko deialdia egiten dizuegu. Aurten ere guztiontzako auzo hobea bat lortzeko lanean jarraituko dugu betiko ganoraz, adore eta tinkotasunarekin. Eutsi goiari eta aurrera!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

Zorrotzako kultur aldzakaria
49. zenbakia. 2018ko urtarrila

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Emaila: zmorrotz@gmail.com

 facebook.com/ZorrotzMorrotz
 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Aitor Marin

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Naroa Peña
- Ainara García
- Iratze Pérez
- Igor Gutiérrez
- Zuriñe Vila
- Haizea Olleta
- Lorna Yáñez
- Aitor Marin

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Asier Urkiza
- Manu Cobo
- Saúl Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldzakariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukia erantzule bakarra



*Regalos
Omega*
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



Bilboko Udalak Zorrotzako Muturra hobetu eta aisialdirako gune bihurtuko du

“Plan azkar” batean jasotako jarduketan bidez, auzokideek Zorrotzako Muturra erabiltzea eta hor ondo pasatzea sustatu nahi da. Inguru hori dinamizatzeke Udalak kirol egitea funtsezko ardatz izatea nahi du, gimnasia egiteko eta pertsonak errehabilitatzeko gune bat jarrita, eta ibilbide batez Bide Berdearekin, Olabeagako pasealekuarekin lotuta. Txakurrek ariketak egiteko lehen gunea ere jarriko da eta hiri-altzariak hobetu egingo dira.



Aitor Marin

Bilboko Udalak Zorrotzako Muturra hobetu nahi du eta hiriko aisialdiaren mapako zatia izango den topaketa, aisialdi eta jolaserako gune berri bihurtu. “Plan azkar” batean jasotako jarduketan bidez aldea eraberritu eta hobetzea da helburua. Jarduketa hauen xedea lotura hobek izango dituen eta beraz hirian hobeto integratuta egongo den jolasgune berria sortzeaz gain, alde horretako bizi-kalitatea hobetuta bizikidetzara hobetzea da. Pasa den abenduan aurkeztu zuten “plan azkar” hau Juan Mari Aburto Bilboko alkateak eta Ricardo Barkala Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoko zinegotziak.

Etxebizitzaren gunea eraberritzea, kudeatutako edo kudeatzen ari diren lur-zoruez baliatu eta horiek egoiliarrentzako kalitate handiko espazio publikoen sarea osotuko duten orube bihurtzea, eta herritarren artean Zorrotzako Muturraren erabilera eta gozamina sustatzea ditu helburu nagusi planak. Lur-zoru publikoetan Bilboko Aisialdiaren Maparako

aisialdi-espazio berriak sortzea, eta narriatuta daudelako edo erabiltzen ez direlako segurtasunik ez duten lekuak kentzea ere lortu nahi da. Era berean, auzoan aparkatzeko leku gehiago jartzea bilatzen du plan honek. Izan ere, aparkatzeko gune berri bi sortuko dira eremuan, eta horretarako orain dauden espazioak kudeatuko dira.

Hirigintza arloko susperraldia

Jabetza eta egokitzapenari dagokienez egin beharreko gestioak eginda, 2500 m²-ko azalera geratuko da libre eta bizikidetzara gune berriak sortzeko erabili ahalako da. Egoteko gune berriak sortuko dira. Orube bi egoera onean jarriko dira berriz ere. Guztira, bien azalera 2500 m²-koa da. Hiri-altzariak eta argiak jarriko dira eta narriatutako aldeak hobetuko dira. Adibidez, Olabeagako eta Clara Campoamor kaleko sarbideak hobetuko dira: Txinbo fabrikaren aparkalekuko horma mugituko da, bide zabala eta segurua egiteko lehenengo sarbidean. Bigarrenean berriz, ingurua hobetzeko eta segurtasuna handitzeko argi gehiago jarriko dira tunelean; babes-barandak jarri eta ibilgai-luen bidearekiko altu dauden espaloietako hormak ere hobetu egingo dira. Lan horiek egiteko epea 6 hilabetekoa izango da eta aurrekontua, gutxi gorabehera, 650000 eurokoa izango da.

Erriberako parke berria, Bide Berdea eta kirol-ibilbideak

2500 m²-ko azalera izango duen parke berri bat sortuko da eguteraan. Hiri-altzariak jarriko dira eta Bide Berdeko bideskekin lotuta

egongo da. Beste alde batetik, txakurrak jolasteko gune bat eta onik irauteko gimnasia egiteko gune bat sortuko dira. Jarduketa horiek egiteko epea 5 hilabetekoa izango da eta aurrekontua, gutxi gorabehera, 850000 eurokoa izango da. Halaber, Udalak bide berde berri bat sortuko du eta alde horretako kirol ibilbideak sustatuko ditu trenbide zaharreen. Horrela, parkeko alde berria eta Clara Campoamor kalea lotuta geratuko dira, baita Zorrotzako Muturrean orain dauden pasealekuak eta Olabeagako oinezkoen pasealeku berriko sarbideak ere. Ibilbidean zehar kirola egiteko zenbait instalazio jarriko dira. Jarduketa horiek, gutxi gorabehera, 350000 euroko aurrekontua izango dute.

Begi onez, baina berandu samar

Zorrotzako Auzo Elkarteak begi onez ikusten du aurkeztutako plana, baina maiatzean

izandako sute latzaren ondorioz bultzatuak direlakoan da, eta berandu heltzen dela gogor kritikatu du: “Zoritxar latza behar izan da azkenik Bilboko Udalak lanari ekiteko Landan”. Izan ere, elkarteko kide batek azaldu duenez, “askotan eta aspaldidanik eskatu genuen Landako ghettoa eraberritzeko, baina zoritxarrez, bost hildako behar izan dira birgaitzea martxan jartzeko. Berandu samar ailegatu da”. Hala ere, “noiz edo noiz” gauzatuko dela azpimarratzen dute, eta hori poztekoa da.

Era berean, Udala ohartarazi nahi dute, eta Zazpi Landa etxaldeko egoeraren kezka azaldu nahi du Auzo Elkarteak. “Zazpi Landa etxaldean hirigintza zein giza ingurumenaren narriadura aurrera doaz”, eta konponbide bat behar duela diote, Landako eremuan gertatu zena berriro ez errepikatzeko.

Bertso afari jendetsua Euskararen Eguna ospatzeko Oihana Bartra eta Xabat Galletebeitiarekin

Zorrotz Morrotz

Urtero bezala, Euskal Txokoak Nazioarteko Euskararen Eguna ospatzeko bertso afaria antolatu zuen abenduaren 1ean. Beste behin ere, Arsenio jatetxeko jantokia bete genuen Zorrotzako euskaltzaleok. Aurten, afari goxoa dastatu ostean, Oihana Bartra eta Xabat Galletebeitia izan ziren bertsotan aritu ziren bertsolari gonbidatuak. Astean zehar, eta Euskararen Eguna zela eta, zenbait ekintza kultural ere egon ziren auzoko ikastetxeetan.



Abian da Ikusi eta Ikasi haur kultur zirkuitua, eta gure auzoan ordutegi aldaketekin dator

Zorrotz Morrotz

Ikusi eta Ikasi, Bilboko 2-8 urteko haurrei eta beraien senideei zuzendutako haur kultur zirkuituan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago jada. Aurten ere Zorrotzan, ikuskinarekin zein tailerrekin, euskaraz gozatzeko aukera izango dugu, martxo eta apiril bitartean lau saio izango baitira gurean.

Ordutegiei dagokienez, Zorrotzako Udalgan eskainiko diren emanaldiak arratsaldean izan beharrean, goizez izango dira. Hau da, 18:00etan izan beharrean 11:00etan hain zuzen ere. Ikuskizun eta tailer guztiak dohaiarik dira. Informazio gehiago www.ikusietaika-si.eus webgunean. Familia giroan gozatzeko aisialdia auzoan bertan!



Igor Gutiérrez

Urtebete da trenak Marce eta Sinda harrapatu zituela Zorrozgoiti kalean dagoen FEVEko pasagunean. Bi auzokideak gogoratzeko Auzo Elkarteak eta Taldeen Koordinakundeak ekitaldi xume bat antolatu zuten abenduaren 8an istripua gertatu zen toki berean. Berrogeita hamar auzokide inguru bertaratu ziren pasagunera eta minutu bat isilean egon eta gero, lore bana ipini zuten Marce, Sinda eta kalte-tu guztien omenaldi eta begirune gisa. Hurrengo astean ekitaldi jendetsuago bat burutu zen auzoan FEVEko pasagune biak giza kate baten bitartez lotu zirelarik.

Zorrotzak tinko eusten dio lurperatzearen aldeko borrokari. Izan ere, istripua izan zenetik ez da benetako aurrerapausorik eman. Espainako 2017rako aurrekontuetan 200000 euro



hitzartuta zeuden lurperatze ikerketa berri bat gauzatzeko, orain arte egindako seigarrena izango zena. Ordea, urtea igaro da eta azterketa hori ez da egin.

Auzo Mugimenduak mobilizazio berriak iragarri ditu geltokia lurperatzeko proiektu ona, diruz ondo hornitua eta obrak gauzatzeko epea ahalik eta lasterren bermatuta gera daitezten.

Industria pabilioi batek su hartu zuen Landan

Zorrotz Morrotz

Urtarrilaren 10ean arratsaldean gertatu zen sutea, eta honen arrazoiak argitu gabe daude momentuz. Marino Archer kaleko paper eta plastiko bezalako materialak gor-

detzeko erabiltzen zen eraikin batean hasi zen sua, ke handia sortuz eta auzoan izua eraginez, baina zorionez ez zen inolako zauriturik egon. Suhiltzaileak arin gerturatu ziren auzora eta ordu eta erdi geroago guztiz itzailita geratu zen sutea.



Vicente Zabala parrokoa

Kale hau 1971-04-28n egin zan, Justiren larretan etxeak eraiki zutenean Abaro eta Zalbidea estartak batzen. Vicente Zabala auzoko parroko esaguna izan zan eta bere izena imini zautsien kale barri honeri. Gaur egun Zorrozoiti estartaraino luzatu dabe lantegiak desagertu zirenetik. Argazkietan ikusten da Justiren larrak non Mikel Deunaren jaietan dantzak egiten baitziren.



San Miquel jaiak

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIAI!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

“ Lanera oinez joateko aukera daukat, ez dut garraioaren beharrik ”



MIKEL ANSAREO

Bizitokia: Paris (Frantzia)

Noiztik: 2004tik

Adina: 37 urte

LANBIDEA: Nazioarteko birfintze kontseilaria

Duela urte asko Eusko Jaurlaritzak emandako beka bati esker petrolioaren eremuan burutu zituen ikasketak Mikel Ansareok. Gaur egun Parisen bizi da eta nazioarteko birfintze kontseilari moduan egiten du lan. Lanari esker munduko hainbat toki eta kultura ezagutzeko parada izan du.

Testua: Ibai Barrios

Noiz, nolatan eta zergatik joan zinen? Bakakigu hainbat lekutan egonda zaudela.

Lehenengo aldiz, duela urte dezente Frantziara joan nintzen ingeniarietza ikasketak burutzera, Rueil-Malmaisonera (Pariseko mendebaldeko eskualdera) hain zuzen ere. Bertan petrolio eskola dago eta Eusko Jaurlaritzak ematen duen beka bat lortu nuen. Geroago, oraindik ikasle nintzela, Exxon Mobil enpresak Normandia aldean kontratu bat proposatu eta onartu egin nuen. Urte eta erdi geroago Normandian bizitzeaz gogaitu eta beste petrolio birfindegi batera (BP) joan nintzen valentziar kostaldeetara. Castellón zortzi urte egon eta gero Rueil-Malmaisonera bueltatu nintzen beste enpresa batera (Axens). Gaur egun, nazioarteko birfintze kontseilaria naiz eta bidaia asko egiten ditut munduan zehar. Esan beharra dago Argenti-

nan eta Finlandian euskaraz egiteko aukera izan dudala.

Oso ezberdina da hango bizimodua edo aukokoaren antzekoa da?

Desberdintasun handiena kontinentez aldatzean nabaritzen dut. Txinan, Japonian edo Korean euren kultura oso ezberdina da gurearekin konparatuz, etxetik kanpo nagoenean gehien gustuko ditudan herriak Errusia, Grezia eta Argentina dira. Hiru herri hauetan etxean bezala sentitzen naiz.

Gogorra egin zitzaizun hango lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Hasieran gogorra baina pixkanaka ohitzen hasten zara eta gero gustura egon zaitezke. Indiara joan nintzenean, hasieran etxera bueltatzeko gogoia nuen ia egunero baina bi hilabete pasa eta gero eroso sentitzen hasi

naiz. Geroago nire emaztearekin batera oporak igarotzera itzuli naiz.

Zer da han gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Sena ibaia eta paisaia berdeak asko gustatzen zaizkit. Izan ere eguerdian, lanean nagoeanean, korrika egitera sarritan ateratzen naiz. Gainera leku txikia denez, lanera oinez joateko aukera daukat eta ez dut garraiorik hartzeko beharrik. Gutxien gustatzen zaidana distantzia handiak dira. Aireportura heltzeko gutxienez ordu bat egin behar dut trenaz ala kotexz. Gainera sekulako auto-ilarak daude edonora joateko eta gidatzean jendea oso urduri jartzen da.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Urtero saiatzen naiz etortzen: nire urtebetetzean, Bilboko Aste Nagusian, Zorrotzako Jaietan eta Gabonetan.

Zer sumatzen duzu faltan?

Familia, lagunak, Athletic eta poteoa, baina ez galdetu ordena, kar kar...

Nolakoa da zure eguneroko bizimodua?

Frantzian nagoenean lana, errugbian aritzea, enologia ikastaroak egitea eta asteburuetan Parisetik irtetzea dira nire jarduera arrunteak. Beste herrialde batean nagoenean, lana eta bertako hizkuntzan komunikatzen saiatzea esango nuke.

Zein izango litzateke zure ustez hango ezaugarriarik adierazgarriena?

Nahiz eta Pariseko eskualdean egon, oso leku txikia da eta jende guztiak ezagutzen



Mikel Ansareo Bandar Abbasen (Iranen) laneko arropaz jantzita birfindegi batean

du elkar. Bestalde, Paris aldamenean egonda, eskaintza kultural erraldoi bat ere baduzu eskura. Ondo orekatuta dago.

Eta bukatzeko... Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu edo han geratuko zara betiko?

Batek dak! Hemengoa izanik, nire bihotzean zorrotzar sentimendu sakona daroat eta nire gurasoak auzoan bizi dira. Etorkizun hurbilean zaila ikusten dut zeren eta oso birfindegi gutxi (bakar bat baino ez) baitaude Bizkaian eta gaur egun kontratazioak Madrilen erabakitzen dituzte.

cafetxinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

amc
diseinua

Diseinu grafikoa:

irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

AMIGOS DEL BAILE AZAHARA ELKARTEA

Dantzatzeko gogoak sustatzen!

Andaluzia eta azahar lorearen arteko loturari erreferentzia eginez, Zorrotzako emakume talde batek “Amigos del baile Azahara” erakundea sortzea erabaki zuen “sevillanak” dantzatzen ikasteko helburuarekin duela 11 urte



Testua: Naroa Peña eta Zuriñe Vila
Argazkiak: Azahara Elkarteak

2006ko irailean Zorrotzako emakume talde baten eskutik “Amigos del baile Azahara” erakundea sortu zen “sevillanak” dantzatzen ikasteko helburuarekin. Momentura arte “sevillana” klaseak lehenengo Fray Juan ikastetxean eta geroago Zorrotzako institutuan eskaintzen ziren, baina instalazioekin arazo batzuk izan zirela eta klaseko partaideen artean erakundea sortzea erabaki zuten, horrela lokal finko bat izango zuten klaseak jaso ahal izateko. Beraz, Azahara erakundea “sevillanak” ikasteko lagun talde baten nahiagatik sortu zela esan dezakegu.

Gaur egun, ordea, “sevillana” klaseak eskaintzeaz gain, aretoko dantzak, sabel-dantza eta, aurtengo berrikuntza, Zumba klaseak ematen dira.

Erakundea dantza gustuko duen edozein adinetako gizon edo emakumeri zabalik dago. Momentu honetan 118 kidez osatuta dago, gehienak emakumezkoak dira, soilik 5 gizon baitaude. Begoña López taldearen lehendakaria da. Baina zuzendaritza batzordearen barruan beste postu batzuk ere badaude, haien artean: idazkaria, Begoña Nuñez, eta diruzaina, Rosa María Urriaga.

Dantza ikastaroaz gain urtean zehar hainbat ekintza desberdinetan parte hartzen dute: auzoko inauterirako taldeko mozorroa prestatu eta kalejiran parte hartzen dute, auzoko jaietan dantza erakustaldi bat prestatzen dute eta eskatzen zaien edozein ekintzatan laguntza emateko prest egoten dira. Horretaz gain, hirugarren adineko egoitza desberdinetara joaten dira “sevillanak” eta areto dantzak egitera. Urtean behin, emakumea-



ren eguna ospatzeko asmoz, irteeratxo bat egiten dute.

Proiektuak aurrera jarraitzen du bazkideen konpromiso eta dantzarekiko motibazioari esker. Hala ere, hurrengo urteei begira gustatuko litzaieke partaide kopuruak gora egitea eta batez ere gizonezkoen eta jende gaztearen partaidetza handitu ahal izatea.

Elkartea ezagutu nahi izanez gero Zorrotza-ko Azoka Parkean eraiki berri "Azoka Komunitate Zentrora" abiatu zaitze. Bertako ordutegia astelehenetik ostiralera arratsaldeko bostetatik gaueko hamarretara da. Informa-

Dantza ikastaroak antolatzeaz gain urtean zehar hainbat ekintza desberdinetan parte hartzen dute: inauteriko kalejiran, auzoko jaietan eta eskatzen zaien edozein ekintzatan laguntza emateko prest egoten dira

zioa emailaz edo telefonoz jasotzea nahiago baduzu, 615783350 telefono zenbakira deitu dezakezu, edo azaharaasociacion@gmail.com helbide elektronikora email bat idatzi. Anima zaitetz gorputza mugitzera!

**CAFÉ
LAS NAVAS**

**Pintxo
gozoak
egunero**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 4

**AUTO ESKOLA
KAIKU**



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarguz)
Eguneko menua*

TXUS GOJENURI: Athleticceko emakumezkoen futbol koordinatzailea

“**Formakuntza oso gustukoa dut eta arlo honetan eta Athleticen lan egitea izugarria da**”

Burtzeñako eskolako taldean hasi zen Txus futbolean. Eta futbolari izateari etxeko taldean utzi zion, Zorrotza Futbol Clubean. Talde berean hasi zuen entrenatzaile ibilbidea. Hainbat talde zuzendu ondoren, Lezamaraino heldu zen orain dela hamabost urte. Athleticen behe-mailako talde batzuk entrenatu ostean, gaur egun Athletic Clubeko emakumezkoen futbol koordinatzailea eta emakumezkoen B taldearen entrenatzailea ere bada.

Athletic Clubeko emakumezkoen futbol koordinatzailea eta emakumezkoen bigarren taldeko entrenatzailea zara. Ez da nolanhikoa! Nolakoa da zure egunerokotasuna Lezaman?

Hemen ia egun osoa ematen dut. Goizez helitzen naiz, eta entrenamenduak arratsaldeetan direnez, koordinazio lanak egiten ditut bulegoan goizez. Arratsaldeetan, 15:00etatik aurrera hasten gara entrenamenduak prestatzen. 17:00etarako neskak prest egoten dira eta entrenamenduari ekiten diogu. Taldeko neska gehienak oso gazteak dira eta autobusez etortzen dira. 19.30ean badoa busa, eta ordu horretarako prest egon behar dira, beraz entrenamenduak bi ordukoak izaten dira. Astean 4 egunez entrenatzen dute nire taldeko neskek. Astebururo partida... Ez da makala! Lezaman jokatuta, batzuetan inguruak zure burua oso inportante eta handia dela sinetsarazi dezake, baina esfortzu handia ere suposatzen du hemen egoteak. Ez pentsa! Adin horretako gazteentzat, ez da erraza. Nik entrenatzen dudana "B" taldean hamabost urtetik gorako jokalariek daude. Behergo, infantil arloan 12 urtetik 15 urterako beste talde bat badugu. Talde berri bat ateratzeko asmatan gabilta: horrela, infantil, kadete eta "B" taldea izango genituzke lehenengo taldera heldu baino lehen.

Zein da zure kirol arloko curriculum? Noiz hasi zinen futbolean?

Burtzeñako Salesianos eskolako taldean hasi nintzen. Hortik Barakaldo CFra egin nuen jauzi eta auzoko taldean, Zorrotza FCen bukatu nuen. Bertan hasi nintzen entrenatzaile lanean ere. Entrenatzaile izateko hiru karnetak atera nituen eta Zorrotza FC izan zen entrenatu nuen lehenengo taldea. Erandio, Santurtzi eta Moraza taldeetan ere egona nintzen Lezamara orain dela hamabost urte gutxi gora behera heldu baino lehen. Gizonezko infantiletan hasi nintzen lanean eta orain dela bost urte emakumezkoekin hasi naiz lanean.

Ezberdintasunik nabaritu duzu entrenatzean emakumezko eta gizonezkoen futbolaren artean. Atal fisikoan, psikologikoan...?

Ezin da emakumezko eta gizonezkoen futbolaren konparatu. Ezberdinak dira, baina aldi be-



Goian, Txus eta Iraia Iturregi prestatzaile fisikoak bere taldeko neskekin, entrenamendu bat bukatu ostean. Behean, Lezaman bulegoan koordinazio lanetan.

“ Ezin da emakumezko eta gizonezkoen futbola konparatu. Hala ere, teknikoki eta taktikoki berdinak dira eta oro har, gero eta ezberdintasun gutxiago dago ”

rean gero eta ezberdintasun gutxiago dago. Gizonezkoak sendoagoak dira eta haien futbola ere gogorragoa da. Abiadura adibidez, berdina ez denez, ariketarik aldatu behar dira apur bat. Beharbada, nesken futbola apur bat leunagoa da, baina teknikoki eta taktikoki berdinak dira. Harremanetan ez dut ezberdintasunik nabaritu, eta entrenamenduak berdin-berdin prestatzen dira. Emakumezkoak oso langileak dira eta hobetzeko gogo handia dutela nabarmenduko nuke.



“ Aldaketa izugarria bizi da emakumezkoen futbolean azken urteotan. Gero eta jende gehiago etortzen da gure partiduetara. Aldaketaren atarian gaude ”

Gizonezkoen futbolarekin alderatuta, eta kontuan hartuz honek duen arrakasta itzela, emakumezkoen futbola oso gaizki baloratuta dagoela ematen du. Zein da honen zergatia zure ustez: komunikabideak, babesle falta, erakunde publikoen laguntza eza...?

Egia da momentuz ezin dela emakumezkoen eta gizonezkoen futbolaren arrakasta konparatu. Dena den, esan bezala, bost urte eman ditut jada emakumezkoen futboleant lanean eta aldaketa izugarria bizi da azken urte hauetan. Gero eta gehiago baloratzen da, eta gorantz doa etengabe. Komunikabideetan gero eta gehiago ateratzen da; astero telebistan sei partida ematen dituzte telebistan jada eta horrek ere asko laguntzen du. Ligak eta federakundeak ere gehiago lantzen hasi dira...

Eta gizonezkoen futbolarekiko dagoen alde hori gutxitzea posiblea dela uste duzu? Iku-siko dugu noizbait San Mames beteta hamabostero nesken taldea ikusteko?

San Mames betetzea oso zaila da, baina gero eta jende gehiago etortzen da nesken partiduetara. Taldearen egoera ere oso garrantzitsua da. Adibidez, duela bi urte Champions Leagueko partida batean bost mila pertsona bildu ziren San Mamesen neskak ikusteko. Iazko Munduko Txapelketan estadioak betetzen ziren partidak ikusteko... Aldaketaren atarian gaude.

Gorakada honek “talde handiek” mundu mailako izarrak fitxatzea ekarri du. Athleticen filosofia aintzat hartuta, zailagoa izango da mailari eustea, ezta?

Gero eta zailagoa, bai. Emakumezkoen futbolarentzat oso albiste ona da horrelako fitxaketak egotea, baina egia da Athleticentzat zailtasun gehiago suposatzen duela. Hala ere, duela bi urte Ligako txapelidunak izan ginen. Aurten hirugarren postuan gaude. Goitik ditugun Bartzelonak eta Atletico Madrilek izugarriko fitxaketak egin dituzte aurten, eta gehiago egingo dituzte ziur aski. Atzerriko neska batzuk etorri dira Superligara, maila gorenekoak, baina gure filosofiaz oso harro gaude eta eutsiko diogu, nola ez! Gero eta zailagoa izango dugu irabaztea, baina horri aurre egiteko, emakumezkoen futbolaren esturktura sendotu behar dugu Lezaman.

Beraz, harrobia berमतuta dago, ezta?

Bai, zalantzarik gabe. Lehen arraroa zen neskak futboleant aritzea... Orain goi mailako atletak dira eta gure harrobia gero eta hobea da. Bizkaiko hainbat neskez gain, nafar eta gipuzkoar batzuk ere badaude taldean.

Athleticen bigarren taldeko entrenatzailea ere bazara. Zein da zure taldearen helburua?

Bigarren mailan gaude eta ezin gara lehenengo mailara igo, Athleticen lehenengo

taldea bertan dugulako, baina nire helburua lehenengo talderako jokalaririk lantzea da. Adibidez, aurten sei jokalaririk igo dira lehenengora. Harro esan dezaket hori, eta hauxe da nire lana, ez txapelketarik irabaztea. Lehiaketetan aritzeak asko laguntzen du entrenamenduan hazteko, jakina! Baina argi daukat hori ez dela gure helburua.

Zein da futbolearen bizi izan duzun unerik zoriontsuena?

Oso harro nago Athleticen lan egiteaz. Hau izugarria da eta formakuntza oso gustukoa daukat. "Lokatetik ateratzea" lortu dut, honaino heltzea ez da erreza eta hori harro egoteko modukoa da, baina ibilitako talde guztietan egoteaz ere harro nago. Zorrotza, Barakaldo, Larramendi...

Eta mingarriena edo latzena?

Emaizta txarrak edo beste ezer baino askoz mingarriagoa egiten zait jokalariren bat lesionatzen den momentua. Hori da txarrena!

Bukatzeko, zer esango zenioke emakumezkoen futbola inoiz ikusi ez duen futbol zale-tuari zuen partida bat ikustera joan dadila?

Animatuko nuke eta merezi duela konprobatuko luke. Teknikoki, taktikoki eta baita fisikoki ere gero eta hobea da emakumezkoen futbola, eta engantzatzen du.

Eta futbolearen hasteko zalantzatan dagoen neskato bati?

Futbolearen disfrutatzeko beste neska-mutilekin. Ikastoletan hasteko olgetan, eta gustukoa badu, aurrera egiteko zalantzarik ez izan!



LABURREAN

Gustuko duzun futbolari bat?

Onena Messi izan da. Nik ez dut halakorik ikusi, baina Athleticen edozein jokalaririk konprometitua aipatuko nuke.

Entrenatzaile bat?

Ernesto Valverde.

Futbol zelai bat?

San Mames zalantzarik gabe. Beste bat aipatu behar badut, Athleticen Europa Leagueko finala jokatu zuenean, Bucaresten bititako giroak harritu ninduen.

Futbolaz aparte... Zaletasun bat?

Mendia.

Mundutik deskonektatzeko leku bat?

Edozein hondartza.

Partidak izan baino lehen, ba al duzu mania edo superstiziorik?

Gero eta gutxiago, baina beti egoten da zerbait. Adibidez, jokatu baino lehen zer edo zer arraro eginda irabazten badugu, hurrengo partidaren errepikatuko nuke.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Bakailaoa oliotan



Osagaiak: Bakailao solomo gatzgabetua (150 gramo), bizpahiru baratxuri-atal, olio birjina (aukeran 3 goilarakada baratxuri atal bakoitzeko), pipermina (aukeran) eta perexila (aukeran)

- Bakailaoa zatitan edo xerra mehetan aurkeztu daiteke. Zorrotzako Batzokian azken aukera honen aldekoak gara, beraz solo-moak mokadu zatitan moztuko ditugu.
- Zatiak burrunzti batekin zizatuko ditugu.
- Baratxuri-atalak meheki zatitu eta piperminarekin batera xigortuko dugu. Kontuz ibili, baratxuria erretzen bada, mingostuko du.
- Pipermina kendu eta olio erre beroa gainetik bota pintxoei.
- Momentuan edo ordu batzuez beratu ondoren jan daiteke. Gu azken honen aldekoak gara, zapore gehiago izango baitu.

Zaitasun maila Erreza-ertaina

Prezioa: 1,50 euro

ZORROTZAKO BATZOKIA



Zorrotzako Batzokitik orrialde honetan plazaratzeko aukeratu dugun pintxoa oso arrakastatsua da gure barran, eta urteko edozein arotan hartzen da. Txakoli hotz batekin batera lagunduta, luxuzko pintxoa.

Pintxo ugari barran egunero.

Bazkariak zein afariak egiten dira enkarguaren bitartez. Bestetik, jantokia sukaldearekin batera "txoko" moduan alokatu daiteke ospakizunetarako (urtebetetzeak, ospakizunak...).

Fray Juan 25 (sarrera Clara Campoamor kaletik). 48013, Zorrotza

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15



**ZORROTZA
HAZI
ARAZI**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Koadernoazuri

Arantxa Iturbe. Elkar. 2017. 88 orrialde

Doinua:

Beste bateko inularretan

Euskal herria urte askotan

ez da egon giro onean

zauriak ixten ez da erreza

baina bagaude unean

aurrera egin nahi ordea ezin

traba ugari gurpilean

nola arrazoia beti dagoen

norberaren oinazean

zaila da zerbait eraikitzea

oztopatu nahi denean

bakea zer den ez dakit baina

hau nabil gaur hausnarrean

ezer baino lehen euskal presoak

etxeokokin ta etxean

Asier Urkiza



Bi ahizpa, urtetan elkar ikusi ez dutenak, bat-batean amaren heriotzak berriro elkartu dituen arte. Asko dute bata besteari esateko, urrun egon diren bitartean bakoitzari gertatu zaizkionak, eta baita lehenagotik nork bere kolkoan gordetakoak ere. Otzan eta esanekoa izana da bata, errebelde eta lotsagabeagoa bestea, ama estu eta zurrunaren alabak biak ere. Trapu zikinak etxean garbitzeko aginduaren kontra, isilpekoak argitara aterako dituzte Arratek eta Begoñak, beren arteko arrangurak eta ezin ulertuak sendatzeko, hezkuntza zikiratzaile baten min herdoilduak goxatzen saiatzeko. Hika teatro taldearentzat idatzitako antzezlanaz eleberri bihurtu du Arantxa Iturbek sentiberatasunez eta trebeziaz, hitzekin duen dohaina eta pertsonaiekin duen empatia agerian utzi.



Berri txarrak:

Infrasoinuak (Only in Dreams) 2017



Taldea aspalditik jarraitzen dugunok gogoz espe-ro genuen lan berri hau. Izan ere, hiru urte igaro dira "Denbora da poligrafo bakarra" diska hirukoitza atera zutenetik. Oraingo honetan taldea ohiko formatura itzuli eta 10 kantaz osatutako plastikoa dakar besapean. Gorka Urbizu taldeko abeslari eta kitarristak esan duenez "taldearen DNA n itsatsita dauden estilo guztiak biltzen dira "Infrasoinuak" izeneko lan berri honetan". Eta agerian uzten dute berriro ere pop-etik gertu dauden melodiak eta rockaren alderdi guztiak jorratzeko gai direla. Azkenengo disketan esperimantazio ugari egin eta gero honakoan etenik gabeko 32 minutuetan zehar (laburra egiten zaigu, baina hobe horrela) aurretik aipatutako taldearen nortasunean esanguratsu egin diren estiloak aurkituko ditugu. Guztien artean aipatzekoak dira "Zuri" (Berri txarrak ehuneko ehunean), "Hozkia" k daukan indarra eta nire buruan bueltaka dabilen "Katedral bat" abesti puska. Diska borobila burutu dute ezbairik gabe.

Ibai Barrios



Taberna
MITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



PICOS
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



MESÓN
LUNA

Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian “iritzia” jarrita. Eskerrik asko!



Tren luzea

Luzea, tren luzea bezalakoa, oso luzea izan da gure borroka FEVE trenbidea lurperatzeko. Zaharra, argazkiko aldizkaria bezalakoa, oso zaharra izan da gure borroka estazioa mantentzeko.

*Beti dago egunsentian tren luze bat estaziotik abiatzen.
Andere beltz bat egoten da etxeko leihotik begira,
adio esan gabe inori, agurtu nahi lukeena ikusi ezinik jadanik.
Estazioan, beti dago bihotz zatitu bat,
erdiz trenean doana eta erdiz estazioan geratuko dena.
Goibeletik trumoiara, eginahaleko euria egingo du,
kristala bustiz, bagoiak bustiz, trenbidea bustiz.
Trena infernurantz doa beti.*

Joseba Sarrionandia,
“Hnuy illa nyha majah yahoo” (1995)

FEVE trenbidea lurperatzeko borroka eta estazioa auzoan irauteko borroka: bat da-toz borroka biak? Bai, betidanik eta betiko.

Bat etorriko dira lorpen biak? Auskalo...

Atrebentziarik ozenki ez esateko; ausardiarik ez plazaratzeko. Baina lerroen artean irakurtzen badugu (bai bileretan bai komunikabideetan agertu diren adierazpenetan, ongi azpimarratzen dute lehentxeago edo geroxeago trenbideak lurperatuko direla),



Adelante aldizkariko 39. zenbakia. 1912. urtea. Azaleko argazkiaren azpian “La estación de Zorroza en el ferrocarril de Santander a Bilbao” irakur daiteke

estazioa ez da azaltzen, ezkutatu –ez lurperatu– egiten dute.

“Abando baino lehenago egingo da”, Aburto alkatearen hitzak. “Ez da berdin 80 milioi euro trenbidea eta geltokia lurperatzeko, edo 35 milioi euro trenbideak lurperatzeko”, Fran Viñezen begi-bistan botatako hausnarketa.

“Estazioan, beti dago bihotz zatitu bat”; “erdiz trenean doana”-k lapurtuko digu estazioa? “Erdiz estazioan geratuko dena” estazio bera izango da?

Erantzunak Zorrotzako auzokideon esku eta ahotsetan daude: GELTOKIA LURPERATU!

Txetxu Rojo

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Hitz maskulinoak hitz neutro bezala erabiltzearen ezegokitasunari buruz aritu ginen aurreko zenbakian. Honetan, honen adibideak ematen jarraituko dugu... hainbeste dira eta!!

- Kanguru hau triste dago ez baitauka semerik > ez baitauka umerik (kumerik)
- Eskola honen mutilentzako festa > Eskola honen neska-mutilentzako / ikasleentzako festa
- Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara > guztiok neba-arrebak gara
- Ikasleen anai-arrebak ere etor daitezke > Ikasleen neba-arrebak ere etor daitezke.

- Eskolako maisu guztiak gonbidatuta daude > Eskolako maisu-maistra / irakasle guztiak gonbidatuta daude
- Errege Katolikoek konkista > Errege-erregina Katolikoek konkista
- Asturiaseko printzeak > Asturiaseko printze-printzesak
- Probintziako alkate jaun guztiak erantzun diote deialdiari > Probintziako alkate jaun-andre guztiak erantzun diote deialdiari.

Eta beti ere, gogoratu bai "gizon-andreak" eta "andre-gizonak" erabili dezakegula, silaba kopuru berbera daukatenean artean, aurrean ipintzen duguna aukeratu baitezkegu.

SALAKETA ARGAZKIA



Eztabaida bidea

Bada herritarrok ulertzen ez dugun gauza bat, egin beharreko lanak baztertuta geratzea bi erakunderen arteko eztabaidagatik, eskuduntza norena den argitzeko.

Hona adibide garbi bat: Zorrotza-Kastrexana errepidean, FEVEko antzinako geltokia zegoen tokian, zubiko espaloia egoera traketsean dago, Udala eta Aldundia ez direlako ados jartzen ardura norena den.

ARIN GRAF, S.L. INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com



BAR VENECIA

Especialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estrata 10

AUPA ATHLETIC

ROCKET TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Hitzaren boterea edo egun bakan baten kronika

Heldu da eguna. Goizeko 7ak dira eta Baionako Leroy Merlineko errotondan gaude, Amikuze eta Garazi aldetik etorri behar den autobusaren zain. Abenduak 17 ditu eta kalean ez dabil inor, hotzari aurre eginez Barakaldora goazen zoroak baizik. Zoro euskaldunak, horixe. 4 ordu barru hasiko da dena, BEC-eko liturgia kolektibo gisako hori. Iparraldetik Hegoaldera, kontrola mugan. Ez dezagun ahantzi bitan banatuta bizi garela. Tira, egia esateko ez zegoen kontrolik. Mugarik sakonenak geure buruari jartzen dizkiogunak direla oroitarazteko edo, batek daki.

Gaueko 9ak dira eta osteraren busean. Ezin sinetsita, egunak eman duenari neurria hartu nahian. Makina bat ordu bertsoak entzuten, eta gehiago nahi dugula, aizue. Ez gaitu ase bertso betekadak, inoiz ez baita aski hitza tarteko denean. Leihotik begira nagoela, hori da behin eta berriro kaskezurra zulatzen di-

dana. Hitzaren boterea. Horretan nabil pentsatzen saioa gogoratu bitartean. Maialenen begirada zurrak ezin gogotik kendu. Herri oso bat bere hitzei adi, eta berak patxada galdu ez. Alderantziz, gozatzen, gurekin eta gugatik. Hitza dela bide, hasi eta buka. Zer edukiko du, bada, hitzak, silaba multzo batek horrenbesteko indarra izateko... Majia ez ote den. Askotan esaten da BEC-ekoa ez dela euskalgintzaren eta bertsoaritzaren benetako argazkia, egun bateko aparrarekin ezin dela inongo itsasorik egin. Eta egia da. Zer indartsu hemen, zer ahul hormaz bestalde, txapeldunak esan legez. Bai, baina hori guztia egia izanda ere, ni behintzat indarberrituta ateratzen naiz BEC-etik. Sentipen pertsonala izango da, faltua, artifiziala, errealtatearekin inolako loturarik ez daukana, baina goizeko 5:30ean jaiki naiz eta leher eginda ixten ditut begiak autobusean, utzidazue amesten.

Astelehena da gaur, eta azterketa daukat. Egunerokoaren herotsak, ordea, ez du hitzaren oihartzuna erabat apaldu. Hortaz, egunerokoan ere, BEC-ekoa oasi hutsean gelditu ez dadin, eutsi diezaiogun gure hitzari, gure hitz xumeari, daukagun bakarra da-eta.

Asier Urkiza

“Itzela izan da”: Agur Berton!

“JAIO ETA HAZI zen moduan iritsi zaio BERTON aldizkariari, beste hedabide batzuei bezala, gainbehera, biziraupena eta amaiera” Horrela hasi zen Berton Mahatserriko, (Begoña herria osatzen zuten auzoetako) aldizkariak paperean kaleratu duen azken zenbakiko erreportaje nagusia. Ondo hausnartutako erabakia dela diote lantaldeko kideek. “Papera uzteko erabakia ez da erraza izan, “baina egoera aldrebesa gehiago luzatzea zentzugabea zen; arriskutsua ere izan zitekeen” azaldu dute hogeitun urteko ibilbidea itxi duen artikulu horretan Berton aldizkariako arduradunek.

Mahatserriko auzotarrak ez ezik, Bilboko euskaltzale asko tristetu ditu albiste honek. Honez jabetuta, eta BERTON-ek amaiera tristea ez izateko asmoz “auzolanean egindako bidea auzotarren artean gogoratze eta goraitzeko” jaitxo bat antolatu du aldizkari lantaldeak urtarilaren 20an, larunbat arratsaldean, Santutxuko Karmelan, –Karmelo ikastola zaharrean–. “BERTON maitatu duen oro gonbidatuta dago”. Zorrotz Morrotzeko lagunok, badakigu zein zaila den horrelako proiektu komunikatiboa aurrera ateratzea, musutruk lan eginda, edo kasurik onenean, erdi profesionala den egiturarekin... Nola ez, BERTON eta zuekin egongo gara ZMeko lagunak. Zorrotzatik, mila esker hogeitun urte hauetan Bilbon euskararen alde egindako lanagatik!

Aitor Marin, ZMeko koordinadorea

Belaunaldien arteko proiektu komunitarioa

Zorrozgoitiko Eguneko Zentroa eta Egoitza zabaldu zenetik, 2016ko irailetik hain zuzen, Zentroaren Sail Psikosoziala Egoitzan bizi diren edo Eguneko Zentrorra joaten diren pertsona nagusiak komunitatean integratzeko lanean aritu da. Ekimen horietako batean Gure Lurra-kook ere parte hartzen ari gara: adingabeek eta nagusiek elkarrekin diseinatzea haien erabilerarako izango den lehen espazio publikoa.

Aukera guztiak aztertu eta gero, uste dugu gune berria kokatzeko, Zorrozgoitiko Egoitzaren ondoan dagoen enparantza aukerarik egokiena izango litzatekeela; alde batetik, uste dugu plaza horren erabilera eskasa dela eta, beste aldetik, bere itxura asko hobetu ahal dela gehiago erabiltzen badugu.

Proiektuaren helburu nagusia, auzoko umeek (Gure Lurra Elkartekoek) eta nagusiek (Egoitza eta Eguneko Zentrokoek) diseinatatuko eta haien erabilerarako eremu bat izatea da. Egoitzako kideek ekimen horrek onura nabarmenak ekarriko litzuzkeela uste dute, hala nola:

- Aurrekaririk ez duen belaunaldien arteko parte-hartze komunitarioa, non umeek, nagusiek eta auzokideek proposatzen duten haien erabilerarako eremu baten diseinua.



- Historikoki andeatua izan den gure auzoa hirigintzaz birsortzea, "ahaztuak" diren txokoak berreskuratzen eta, aldi berean, auzokideen ekimenetik sortutako parte-hartze komunitarioa indartzen.
- Gizarte-zerbitzuen alorrean gauzatzen ari den berrikuntza azalerratu du.
- Egoitzako nagusiek eta auzoko umeek aisialdia partekatzeko esparruak bermatuko ditu.

Azaroaren 7an, Urbegi Taldeak proiektua aurreratu zuen Bilbao Tech Week-eko jardunaldietan aurkezteko, "Taller de Mentorización" izeneko saioan. Espero dugu lan-taldeko saioekin laster hasia.



Jai-Alai kafetegia



Abarotz estrada, 12
94 490 12 59

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

Disenya



Alazne

Guztietan egon naiz umeeekin eta primeran egon dira, egiten den edozein gauza beti ere ongietorria baita. Jende askok ere parte hartu duela esango nuke.



Esti

Ezin nintzen Olentzero egunean egon. Erregeen kabalgata oso polita iruditu zait. Ahal dudan guztietan hartzen dut parte.

Gabonetako ekintzak auzoan:

Parte hartu duzu?
Zer iruditu zaizkizu?

Iratze Pérez



Izaro

Umeentzako gauza guztietan hartu dut parte. Pena handiz ikusi nuen nola Olentzeroren kalejirara oso jende gutxi gerturatu zen Errege kabalgatarekin alderatuta. Gure kulturaren babes handiagoa egin beharko genukeela uste dut.



Jose

Bai, gainera urtero atontzen dut balkoia gabonetarako! Jendeari egindako ekintzak gustatzen zaizkiola badirudi, nahiz eta gero askotan ez beharreko kritikak entzuten diren...



Asier

Oso ekintza onak izan dira, baina auzoak parte hartze aktiboagoa izan behar zuela uste dut, askotan begira baino ez baitago jendea.

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO



Tel. 94 441 62 75

MERKEALDIA

%25 DESKONTUA
EKO KRISTAL
GUZTIETAN

ESTRADA DE ABARO, 5 | 944 27 40 80

ibarretaluxury

**TABERNA
INDARRA**



Abaro estrata, 10



DARABILBO

AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOAN

ZUK
ZEUK

AUZOAN, EUSKALTEGIAN,
EDOTA LAGUNARTEAN
DARABILBOKO EKINTZAREN
BAT ANTOLATU NAHI?
DEITU ETA DIDA BATEAN
LOTUKO DUGU
663 089 095

SUKALDARITZA TAILERRAK,
IBILALDI KULTURALAK,
BILBON BIZIKLETAZ,
MUSEOAK,
BERTSO GOSARTAK,
DASTAKETAK,
EUSKAL KULTURA, FILMAK
MODA, JOSKINTZA,
ARGAZKILARITZA, KERAMIKA
TEKNOLOGIA BERRIAK,
MINTZATU APP...

B

Bilbao

WWW.DARABILBO.EUS

